

Lana bilatzearen ajeak

LAN IRAGARKIAK. Urkoa Kontsumitzaile Elkarteak egindako azterketaren arabera, lan iragarkietan emakumearekiko diskriminazioa eta iruzurra izaten da



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Lana bilatzeko orduan egunkarietako lan iragarkietara jotzen dute askok.

Aitziber Laskibar | BILBO

Lanpostu bat aurkitzea ez da, gaur egun, lan erraza; are gutxiago, emakumea edo gaztea izanez gero. Egoera horretaz oharturik, ugari dira lan beharrean dauden horien desiotik probetxu ateratzen saiatzen direnak.

Egunkarietako iragarkiak aztertzea izaten da lan beharrean dauden askoren eginbeharra, lanpostu bat lortzeko modurik egokiena —edo bakanetako— delakoan. Tentuz ibili behar da, iruzurrean jausi nahi ez bada.

Egunkarietako iragarritako lan eskaintzen atzean iruzurrik edo genero aldeko diskriminaziorik dagoen jakiteko, azterketa egin du Urkoa Kontsumitzaile Elkarteak, Bizkaiko Foru Aldundia- ren laguntzarekin. Iazko ekaina eta abendua bitartean egin zuen ikerketa, eta egunkarietako eta Interneten kaleratutako 5.275 lan iragarki aztertu zituen. Iragarkietan emakumearekiko diskriminazioa dagoela eta iruzur egiten dela da ikerketaren ondorio nagusia.

Aztertutako iragarkien %60tan sexismo kutsua antze- man du elkarteak. Ez hizkuntza- ri dagokionez soilik, baita es- kaintzari dagokionez ere. Hala, tradizioz emakumeak bete di- tuten rolen inguruko lan eskain- tzak egiteko, emakumezkoen- gana zuzendu dira iragarleak; garbitasunarekin, haur edo za- harren zaintzarekin, ile apain-

degiekin eta antzeko lanpostue- kin zerikusia dutenak, batik bat.

Nolanahi ere, emakumezko- i eskainiriko lanpostu horietara gizonezkoak aurkeztu diren- tan, enpresa iragarleek ez dute inolako eragozpenik izan lan horiek haien esku uzteko.

Alderantziko kasuetan, erantzuna bestelakoa izan da. Gizonezkoen zuzenduriko lan- postu baterako emakumezkoa aurkeztean, harridura izan da enpresaren lehen erreakzioa, eta erantzunak ezberdinak izan dira. Igeltsero, tornulari, inge- niari edo antzeko lanpostuen eskaintzetan gertatu dira horre- lakoak.

Zenbaitetan, ezezko biribila jaso dute emakumeek; beste zenbaitetik arazorik ez dutela adierazi dute. Gehienetan, or- dea, erantzun garbirik eman ez, eta curriculumak bidaltzeko es- katu zaie, baina, gero, eskaerak bidean galdu izan balira bezala- koa izan da erantzuna.

Gizonen soldata handiagoa

Gainera, lanpostu bera beteta ere, gizonen soldata emakumezkoena baino %20 han- diagoa izatera iristen dela ant- zeman du kontsumitzaile el- karteak, zenbaitetan. Egoera horiek kualifikazio txikia eska- tzen zuten lanpostuetan sarria- go gertatu dira, kualifikazio handiko lanpostuetan baino.

Etekin ateratzeko iruzur egi- ten saiatu diren hainbat kasuren berri ere jakin du Urkoak, 906

DISKRIMINAZIOA

Interneten eta egunkarietako aztertutako iragarkien %60tan sexismo kutsua antze- man du Urkoa elkarteak

IRUZURRA

Lan eskaintzen berri ematen duten iragarki laburren helburua, gehienetan, dirua irabaztea da

telefono linearekin lotuak, gehienak. Egunkarietako ira- garki laburretan antze- man dira iruzur saio gehienak. Haien hel- buru bakarra dirua irabaztea da, eta, iragarkietan lan eskain- tza baten berri ematen duten arren, benetan ez da halako es- kaintzarik izaten.

Egunkarietako laburren ata- lean agertu ohi dira halako ira- garkiak. Laburrak izaten dira, eta ez dute lanaren nondik nora- koen berri zehatzik ematen. Di- ru asko erraz irabaz daitekeela jasotzen dute gehienek. Balizko lanpostu hori lortu nahi izanez gero, 906 telefono batera dei- tzeke eskatzen du iragarkiak.

Hara deituta, elkarrizketa ahalik eta gehien luzatzen saia- tzen dira, telefono deia ez moz- teko helburu bakarraz. Hala, or-

du erdi telefonoz bestalde egon den kasurik ere aurkitu du Urko- ak. Deia 906 zenbaki batera egin denez, gainera, «faktura izuga- rria iristen da ondoren», EGUN- KARIAI Berta Garcia Urkoako le- hendakariak adierazi dionez.

Iruzurraren aurka salaketa

Dei horietako bakoitzagatik diru mordoa irabazten dute iruzurgileek. Izan ere, 906 lineare- kin eginiko kontratuaren arabe- ra, fakturazioaren zati bat en- presa horientzat izaten da; hau da, iruzurgileentzat. Lege hu- tsunea dagoela eta, zaila izaten da iragarkia jarri duten horiek iruzurgile direla frogatzea.

Iruzur mota ugari izaten dira egunkarietako lan eskaintzetan. Hori dela eta, lan bilaketatik ai- roso ateratzeko hainbat go- mendio eman ditu Urkoak: Lan eskaintza handiez mesfidatu, diru askoren eskaintza dagoe- nean edo ahalegin handirik gabe etxetik egin daitekeela dioenean batik bat; dirua eman behar den lanpostuetatik alden- du; enpresako informazio nahi- korik ematen ez denean edo fi- dagarria ez dela susmatuz gero, ez da datu pertsonalik eman be- har. Bestalde, iruzurra den sus- moa badu inork, Lan Ikuskatze Zerbitzuetara jotzeko aukera dago, datuen egiazkotasuna frogatzeko. Nolanahi ere, ohar- kabean ziria sartu badiote inori edo diskriminazio sexistarik ja- san badu, egoera hori salatze- ko deia egin du Urkoak.

ETXEBIZITZAK

Guztira 4,3 milioi euro erabili zituen iaz Jaurlaritzak etxebizitzetarako

Efe | GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzako Etxe- bizitza Sailak 4,3 milioi euro banatu zituen iaz etxebizitzak berritzeko, eskuratzeko eta alokatze- ko. Kopuru hori 2000. ur- tekoaren bikoitza da.

Datu horiek Javier Ma- drazoren sailak aurkeztu- tako Etxebide II txostene- an jasotzen dira. Sailak aurreikusitako helburuen %98 bete zituen: 13.545 ekintza izan ziren, eta ez 13.800, aurrekusi bezala.

Berritze lanetarako 7.109 diru laguntza eman zituen Jaurlaritzak. 50 izan ziren, berriz, alokai- ruko etxebizitzetarako, eta hutsik zeuden etxebi- zitzak eskuratzeko 12.

Diru laguntza gehienak Bizkaian eman zituen iaz Eusko Jaurlaritzak, %57. Gipuzkoan, aldiz, %32 izan ziren, eta Bizkaian %11.

INGURUMENA

Pagasarri naturgunearen aldeko mendi ibilaldia egingo dute gaur

Erredakzioa | DONOSTIA

Pagasarri naturgunea ba- besteko mendi ibilaldia egingo dute gaur Casilla- tik Pagasarriko tontorre- raino, goizeko 10:00etan abiatuta.

Bizkaia Bizirik, Ekolo- gista Martxan, Bizkaiko Mendialde Federazioa, Errekaldeko Batasuna, Ekolan Elkarte eta Paga- sarri Gurea taldeek natur- gunean egingo diren proiektuak salatu dituzte.

Besteak beste, erraus- teko planta eraikitzeaj, Pastorekortako harrobia zabaltzeaj, Santurtzi-Arri- gorriagarako gasbidea za- baltzeak eta Super Sur au- tobidearen proiektuek naturguneari ekarriko dizkioten kalteak salatu dituzte.

Instituzioei Pagasarri babesteko eskatu nahi diete, eta, horretarako, si- nadurak biltzeko kanpai- na abiatu zuten duela hiru hilabete.